



Beasaingo Udalak, kanpainara atxikitako saltokien artean banatuko ditu erosketak sustatzeko bonuak

Iaz 200 establezimendutik gora parte hartu zuten eta 500.000 euroko eragina izan zuen sektorean

Bareak Beasaingo merkatarien elkarteak eta Beasaingo Udalak elkarlanean, erosketak Beasainen egitera bultzatzeko duen erosketa bonuen kanpaina berria abiaraziko dute gaur. Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko eta merkataritza, zerbitzu sektorea eta ostalaritza sustatzeko helburua dute erosketa bonuek eta herrian bertan eroatera bultzatu nahi ditu kontsumitzaileak.

Udalak tokiko merkataritzarekin eta saltokiekin bat egiten du tokiko merkataritza eta ekonomia suspertzeko ahaleginean eta honela, erosketa bonuen bitartez kontsumitzaileak herrian bertan erosketak egin ditzan bonuen txanda berri bat abiaraziko du. Bonuen banaketa gaur egingo du

Udalak kanpaina honi atxikitako saltokietan.

Emaitza onak

Iaz egindako bi kanpainatan bezala, udaberrian eta udazkenean, udalerriko saltoki, jatetxe, taberna eta dendetan banatuko dira bonuak. 2020an orotara, 200 establezimendutik gora parte hartu zuten eta 500.000 eurotik gorako eragina izan zuen tokiko merkataritzan. Bonuak kanpaina honetara atxikiko diren udalerriko zerbitzu sektoreko merkatal saltoki guztietan banatuko dira.

Aurrekoen funtzionamendu berbera izango dute; 7.500 bono izango dira banatuko direnak eta 30 euroren truke 50 gastatu ahal izango dira (Udalak 20 euroekin lagunduko du bonu bakoitza). Guztira 150.000 euroko diru laguntza zuzenduko du bonuen kanpaina honetara Udalak eta uztailearen 15a bitartean erabili behar izango dira.

Bonuak, ekimen honetara atxikiko diren establezimenduetan salduko dira eta 20 bonu banatuko zaizkio merkataria bakoitzari kontsumoa ahalik eta establezimendu gehienetan zabaldu dadin. Udalbatzaren osoko bilkurak aho batez onartu zituen erosketa bonuen oinarriak azken osoko bilkuran udal gobernuaren proposamena berretsiz.



**BEASAINEN
EROSI
SEGURU**

KONTSUMITZEKO EPEA: 2021EKO UZTAILAREN 15

- 1** AUKERATU ZURE BETIKO SALTOKIA
- 2** EROSI 30€-KO BONUA
- 3** GOZATU 50€

 **Beasaingo udala**  **BAREAK
MERKATARI ELKARTEA**

Erosketak herrian egitera bultzatzeko bonuen kanpaina berria hasi da

Azken eguneratzea: Ostirala, 21 Maiatza 2021 13:01

Argitaratua: Osteguna, 20 Maiatza 2021 11:57

